


Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,1 garestitu ziren 2015eko maiatzean aurreko hilaren aldean

2014ko maiatzaren aldean eraikuntza kostuak %0,9 jaitsi ziren

2015eko maiatzean, Euskal AEko Eraikuntza Kostuen Indizea %0,1 goratu zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %0,9 jaitsi zen, Eustaten datuen arabera.

Euskal AEko eraikuntzako kostuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Aurreko hilekoaren aldean, ez zen aldatu eskulanaren kostua, baina lehengaien kostuak % 0,1 handitu ziren.

Azpisektoreka, etxegintzak eta obra zibilak bilakabide antzekoa izan zuten maiatzean lehengaien kostuei dagokienez, aurreko hilarekin alderatuta; izan ere, eraikuntzako lehengaiak % 0,1 garestitu ziren eta obra zibilekoak, berriz, % 0,3. Bi azpisektoreon urtetik urterako bilakaerari dagokionez, zeinu berekoak dira (zeinu negatiboa, izan ere), baina intentsitate desberdinekoak. Eraikuntzako lehengaien kostuak % 0,9 jaitsi ziren eta obra zibilekoak, aldiz, % 2,4.

Sektoreak kontsumitutako zenbait lehengairen urteko prezioak garestitu egin ziren (2015eko maiatzean, 2014ko maiatzekoan aldean). Nabarmentzekoak dira metalgintzakoak (% 1,1eko hazkundera), metalezko artikuluen sektorekoak (% 0,4ko hazkundera), zuraren industriakoak eta material elektronikoaren sektorekoak (% 0,3ko hazkundera azken biak). Aldiz, beste sektore batzuetako lehengaien prezioak txikitu egin dira hamabi hilabete hauetan. Aipatzekoak dira petrolioaren finketaren sektorekoak (% 14,0 txikiagoak), industria kimikoarenak (% 2,0 txikiagoak) eta mineral ez metalikoen sektorekoak (% 1,9 txikiagoak).

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2015EKO MAIATZA

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m/m-1	m/m-12	m/abendua
GUZTIRA	102,1	0,1	-0,9	0,5
Eraikinak	102,0	0,1	-0,7	0,4
Obra zibila	102,2	0,2	-1,8	1,0
LEHENGAI	101,1	0,1	-1,1	0,7
Eraikinak	101,1	0,1	-0,9	0,5
Obra zibila	101,2	0,3	-2,4	1,3
LAN-ESKUA	105,4	0,0	0,0	0,0

Oinarria 2010=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Eraikuntzako kostuen indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago (EEKI)

Euskal AEko Eraikuntzako kostuen indizeari buruzko datu-bankua (EEKI)